

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4542

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 18koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez ematen eta ukatzen baitira otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babespean eskatutako laguntzak. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzei buruzkoa da (Itsaspen programa).

Aztertu dira Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzei buruzko otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babesean aurkeztutako laguntza-eskabideak. Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 16ko Aginduak deitu zituen 2022ko ekitaldirako, eta zerrendatuta daude ebazpen honen I. eta II. eranskinetan, zeinetan eskabide bakoitzari dagokion espediente-zenbakia ere agertzen den. Halaber, aztertu dira eskabideekin batera aurkeztutako agiriak.

Kontuan hartu da, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuari jarraikiz, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2022ko martxoaren 24ko Ebazpenaren bidez izendatu zen balioespen-batzordeak egindako erabaki-proposamena.

Aurreko guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskineko zerrendan dauden erakunde eskatzaileei ematea otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak (Itsaspen programa). Laguntza horiek 2022ko ekitaldirako deitu ziren 2022ko martxoaren 16ko Aginduaren bidez. Goian aipatu eranskinean daude zehaztuta laguntza jasoko duen erakundea, zein proiektuari dagokion, zein den inbertsioa eta dirulaguntzaren zenbatekoa. Zenbatekoa, guztira, 495.296,24 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuarekin ordainduko da.

Inbertsioak gauzatzeko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da, eta deialdiaren urtean hasi beharko da. Epea luzatu daiteke otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 16.3 artikuluan ezarritako denboran.

Dirulaguntza jaso aurretik, jarduerak edota inbertsioak egin eta ordaindu direla justifikatu behar da, kontuan hartuta aurkeztu behar diren dokumentuak eta horretarako baldintzak (otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 14. artikulua).

Inbertsioa ez bada jarritako epean egiten (luzapenak barne) edo inbertsioa egindako ziurtagiriak ez badira epe horretan aurkeztzen, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da, eta, behar izanez gero, jasotako dirua bueltatu egingo da; hori, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 18. artikuluari jarraikiz.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskineko zerrendan dauden erakunde eskatzaileei otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak ukatzea (Itsaspen programa). Laguntza horiek 2022ko eki-

taldirako iragarri ziren 2022ko martxoaren 16ko Aginduaren bidez. Aipatu eranskinean daude laguntzak ukatzeko arrazoiak.

Hirugarrena.– Dirulaguntzak eten egingo dira, eta, hala badagokio, jasotako dirua bueltatu egin beharko da honako kasu hauetan: dirulaguntza jaso duen proiektua egin ez bada; dirulaguntza emateko betekizunak eta baldintzak bete ez badira; eta, batik bat, dirulaguntza jaso duten inbertsioei ez bazaie eusten (proiektua egikaritu eta bost urtean, gutxienez).

Laugarrena.– Erabaki honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 18a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

2022ko urriaren 21a, ostirala

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espediente-zk.	IFK/NAN	Sozietatearen izena	Proiektua	Puntuak	Lagun. Inbe. (euro)	Jasotako laguntza (euro)	
						2022 (euro)	2023 (euro)
1	00001-ITP2022-18	P2004200H Getariako Udala	San Roke eta iribarrena kaleetan irisgarritasuna hobetzea	67	54.492,69	9.590,71	14.386,07
2	00003-ITP2022-18	P2000030C Itziar, Entidad Local Menor	Jolas gunea eta baratza parkea	60	16.314,73	1.957,77	2.936,65
3	00004-ITP2022-18	P2006600G Orioko Udala	Mugikortasuna hondartza aldea eta herriaren arteko lotura sendeotzeko lanak	69	366.114,70	70.294,02	105.441,04
4	00005-ITP2022-18	P4802100J Bermeoko Udala	Kalistenia eta jolasgunea San Martinen	60	246.423,04	29.570,77	44.356,15
5	00006-ITP2022-18	P4803800D Elantxobe – Elantxobeko Udala	Reactivacion de la actividad fisico deportiva del Ayuntamiento de Elantxobe	75	14.766,51	3.543,96	5.315,95
6	00008-ITP2022-18	P2003000C Debako Udala	Deba eta Mutriku lotzen dituen zubia eta berreraitzeko egin diren lanak balioan jartzeko	60	28.886,00	3.199,41	4.799,12
7	00010-ITP2022-18	P2006000J Mutrikuo Udala	Iriagire kaleko igogailu publikoa eta urbanizazio osagarria	62	283.822,38	38.599,84	57.899,77
8	00011-ITP2022-18	P4806700C Lekeitioko Udala	Lekeitioko haurreskola publikoa eraberritzeko lanen bigarren fasea	74	92.244,38	21.400,70	32.101,04
9	00013-ITP2022-18	P4806700C Lekeitioko Udala	Garratzeke parke historiko-naturala. Garratzeke eremu erijijoso-militarra egonkortzea (Lekeito)	66	165.152,71	19.100,00	28.650,00
10	00014-ITP2022-18	P2001700J Aiako Udala	Golz argi eraikinean itxitura berria	63	5.981,30	861,31	1.291,96

2022ko urriaren 21a, ostirala

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zk.	Sozietatearen izena	IFK/NAN	Proiektua	Ukatzekon arrazoia
1	Amorotoko Udala	P4800400F	Argiteri publikoan hobekuntzak Elexalde auzoan	Ez du jaso 60ko gutxieneko puntuazioa
2	Mundakako Udala	P4807900H	Urbanización de parte de La Atalaya, entorno txiringito	Ez du jaso 60ko gutxieneko puntuazioa
3	Muruetako Udala	P4808200B	Proyecto de recuperación del entorno del cargadero de la dinamita en el t.m. de Murueta con un taller	Ez du jaso 60ko gutxieneko puntuazioa
4	Gautegiz Arteagako Udala	P4804900A	Ampliación del skate park del Parque de Tabernazarre	Ez du jaso 60ko gutxieneko puntuazioa